



Gizalari

Zerbitzu Publikoak

EDITORIALA

Pena merezi du

Sinesgaitza badirudi ere, aspaldiko kontua da zerbitzu publikoak suntsitzeko estrategia. Estrategia horrek, berehalakoan eragiten die sektore publikoaren langileei: beren lan baldintzak narriatu egiten dira soldatak izoztu edo jaitsi egiten zaizkielako, lanegunak handitu, gaixoaldietan osagarriak murriztu... Horren ondorio zuzena ez da txantxetako: makina lanpostu suntsituko dira eta eskualde gobernuek badakite bide horretatik enplegu suntsiketa besterik ez dagoela.

Kontutan hartu behar da ere bideratzen ari diren politika publikoen jomuga. Aurrekontuekin, esate baterako, arduraz jokatu behar dela diote, ez dagoela gehiagorik eta. Baina ez da egia. Behar beste diru biltzen ez bada, enpresa eta kapitalaren errentei mesede eta laguntzak eskaintzen zaizkielako da. Hau ez da gizarte honek -are gutxiago garai hauetan- behar duen fiskalitate eredu. Europar Batasunarekiko presio fiskalean orokorrean dugun desberdintasunaz gain, ezin ahaztu zenbateko iruzurra dagoen errentak deklaratzekoan- langileen kalterako beti ere-. Eta bestetik, iruzur fiskalari aurre egiteko jartzen diren baliabide eskasek argiro erakusten dute gure instituzioetan dagoen borondate falta.

Hor dago alternatiba erreala aurrekontuekin baliabide gehiago izan ditzaten. Politika fiskala errotik aldatuz gero, funtzio orekatzaile eta birbanatzailea duten zerbitzu publikoak herritarren benetazko beharrezan asetzeko erabiliko lirarteke.

Gure esku dago politika atzerakoi hauek geratzea. Indarrak handitu eta mobilizazioaren bidea besterik ez dugu. Pena merezi du.



INOIZ BAINO GEHIAGO Zerbitzu publikoak denontzat

Zerbitzu publikoetan murrizketarik ez zela emango hauteskunde kanpainen agindu arren, ez da denbora soberan pasa Urkulluren Gobernuak agindutakoa bertan behera uzteko. Zerbitzu publikoetan lan egiten dugunon eta zerbitzuak eskuratzen dutenon bizkarraren gainean eroriko dira aurrekontu murrizketa latzaren ondorioak.

Hau da gobernu ardurak hartzen dituztenen ohiko jardura: egundokoak eta gehiago agindu eta gure egunerokoa infernua bilakatu.

Gobernuak sindikatuak deitu zituen antzerki hutsalak ziren negoziazio mahaietara, eta bertan egin ez zen gauza bakarria negoziatzea izan zen. Aurrekontu planteamentuaren aurrean, aurrez erabakiak zituzten murrizketak sindikatuarekin negoziatzeko itxura eman nahi izan zuten. Gainera, mahaietan bertan, murrizketa berrien mehatxua plazaratu zen "egoera ekonomikoak" hala eskatzen bazuen. Esan behar, Gobernuak berak interpretatzen duela hori, aldebakarrez.

Enplegu suntsiketa, lan baldintzak eta zerbitzuaren kalitatea. Murrizketa hauek zerbitzu publiko ezberdinetan lehenik enplegu prekarioaren suntsiketa ekarriko dute, lan baldintzak are eta

gehiago okertzea eta zerbitzuen kalitatearen gainbehera. Gainera, murrizketek langabezia eta pobrezia handitzea ekarriko dute zerbitzu publikoaren beharra areagotuz. Nola egingo diogu aurre eskaera handitzeari bitarteko gutxiagorekin?

Mobilizazioa areagotu. Murrizketa eta elkarrizketa sozialaren antzespen honen aurrean, zerbitzu publikoetako langileok mobilizazioa egunero areagotzea besterik ez zaigu geratzen. Horregatik, ELA mobilizatzeko deia luzatu die gainontzeko organizazioei bi oinarritzeko premisekin: murrizketei inongo babesik ematea sektoretako akordio bidez, eta mahi gainean fiskalitatearen eztabaida jartzea, murrizketei alternatiba eskaintzen dion bide bakarria, alegia.

Premisa hauek kontutan hartuz, mobilizazio maila igotzea espero dugu eta agintean dagoenari behartu zerbitzu publikoaren emaile eta hartzaileen ahotsak entzunarazteko. Entzun nahi ez bagaituzte ozenago aldarrikatu beharko dugu.

Gizarte honek -are gutxiago garai hauetan- zerbitzu publikoak behar ditu, ez kontrakoa

BADAGO ALTERNATIBA: BIDEGABEA DEN FISKALITATEA ALDATZEA



Beste politika fiskala. Urkulluren 1.132 milioitako murrizketa presio fiskal txikiagoaren ondorioz biltzen diren 4.450 milioi euroren aurka. Zergatik ez da fiskalitatearen bidetik joaten? Zergatik nahiago dituzte murrizketak? Oso erraza da: euskal ogasunek zergarik ordaindu nahi ez dituzten elite ekonomiko-koen interesak defendatzen dituzte.

Horren bidegabekia den fiskalitate bat eta diru-bilketa maila baxua izateak ageriko ondorioa du: gastu publikoa Europar Batasuneko baxuenetakoa izatea. Honen ondorioz zerbitzu publikoen garapena nabarmen kaltetzen da, diru-sarrera txikien eta nahikoa ez den gastu sozial baten ondorioz. Zerbitzu publiko-ko hobekuntza eta bertan lan egiten duten langileen baldintzak binomio hori apurtzetik etorriko da soilik. Ogasun Kontseiluak eta Lehendakariak ezezkoa esan arren badaude alternatibak, eta orain zergak ordaintzen ez dituzten horiek ordain-araztetik datoz.

Jendearen gehiengoak ez daki presio fiskala Europar Batasunaren batz-bestekoa baino 7 puntu txikiagoa dela, eta horrek urtean 4.400 milioi euro gutxiago biltzea suposatzen duela. Murrizteko "hau da dagoena" aitzakia darabilteanean datu hau ezkutatu egiten digute. Pairatzen dugun fiskalita-

tea oso bidegabekia da; batez ere laneko errenten bizkarretik egiten da. Horiek dira soilik kontrolatzen dituztenak. Izugarriko iruzurra dago. Errenta altuei, kapitalari eta enpresa-errentei mesede egiteko erreformak egin zituzten; atzera bota nahi ez dituzten erreformak.

| URTEA | EAE BPGd % | 27-EB BPGd % | ELGE (OCDE) BPGd % | ALDEA BPGd puntutan | ALDEA MILIOI € |
|--------------------------------|------------|--------------|--------------------|---------------------|----------------|
| 2010 PRESIO FISKALA | 31,6 | 38,4 | | 6,8 | 4.430 |
| 2010 GIZARTE GASTUA | 24,5 | 29,4 | | 4,9 | 3.191 |
| 2010 OSASUNEAN GASTU PUBLIKOA | 5,4 | | 6,7 | 1,3 | 820,7 |
| 2009 HEZKUNTZAN GASTU PUBLIKOA | 4,4 | | 5,4 | 1 | 631,3 |

Lan eguna handitzea eta langabezia

Lotura zuzena dute. Gobernuaren helburua da pertsona gutxiagok lan gehiago egin dezagun. Enplegua dugunok urtean 45 ordu gehiago egiten badugu lan, askoz jende gutxiagok egingo du lan. Hutsik dauden lanpostuak ez dira beteko, interinoak edo aldizkako pertsonala edo ordezkioak ez dira kontratatuko, azpikontraten pertsonala murriztuko da... 45 ordu gehiago urtean (gutxienez) bider 80.000 langile lanpostu askoz gutxiago dira. Ezin dugu onartu honako lanpostuen galerarik.

35 orduko akordioa lortu genuen langabezia tasa orain baino 6 puntuz azpitik zegoenean. Laneguna handitzearekin jarraitzea langabeziaren aldeko hautua egitea da. Honi "zehir-kalte" deitzaiek erakusten du benetan zein den gaiarekiko gobernuak duen sentiberatasuna.

MURRIZKETA ZEHATZAK

■ Soldaten izozketa 2012an soldata %7 murriztu ostean. Dagoeneko eros-ahalmenean %20 baina gehiagoko galera daramagu. Nekez sortuko da enplegua herrialdeko lehen enplegatzaileak bere enplegatuen eros-ahalmena %20 murrizten duenean.

■ Rajoyren Dekretuaren Aldi Baterako Ezintasunen Osagarrien muga aplikatzen dute. Dekretuak berak hainbat salbuespenetan %100ean osatzeko aukera jasotzen zuen, euskal instituzioetan malgutasun handiz erabilia izan den bide bat. Honen ondorioa zera da: gaixotzea permititu ezin duten horiek osasungintza edo hezkuntza bezalako horren sektore sentisibletan lanera joatean dira, nahiz eta gaixotasun kutsakorrak izan.

■ Urteko lanaldia gutxienez 45 ordutan handitzen dute:

- Urteko lanaldia 1.614,5 ordutara igotzen dute.
- Aukera askeko hiru egun kentzen dituzte.
- Antzinasuna metatzeagatik opor egunak kentzen dituzte.

■ Erabaki honek aldi-baterako pertsonalaren artean ehunka lanpostu-ko galera suposatuko du.

■ Ekonomiaren egoerak okerrera egingo balu murrizketa berriekin mehatzatzen dute, alde-bakarrez hartuko duten erabakia, beste behin.

LEGEDIA ONARTZEARENA, BEREHALAKO MEHATXUA IRAKASKUNTZAN

PPk oinarrizkotzat jotzen duen legedia onartzen du Eusko Jaurlaritzak. Garaia neoliberal eta neozentralista honetan legedi hori ia dena da. EAJK, oposizioan zegoela, zera zioen: "oinarrizko legedia ez zela aplikatu behar" eta "foru-baimena" gauzatu behar zela (alegia, men egin bainan ez bete). Orain gobernuan daudelarik, esandakoaz ezer; Madrilek erabakitakoa aplikatzen du. Inoiz ez bezala "autogobernu" maila hain behera dagoen. Zer egiten du EAJK? Estatuko Buletin Ofizialekoa "kopiatu eta itsasi". Dena onartzen dute: Madrilek erabakitako defizita, kopagoa ezartzea, aparteko soldata kentzea, enplegu publikoa eta 35 ordutako akordioa puskatzea... Madril eta PP dira euskadiko Erkidego Autonomoan agintzen dutenak.

Irakaskuntzari dagokionez, aurreko gobernuak eskumenei buruzko gatazka aurkeztu zuen eta Epaitegi Konstituzionalak zein erabaki hartzen duen zain gaude. Gatazka gela bakoitzeko ikasleen kopurua eta ordu lektiboen gehitzea zekarren Dekretuaren aurka zen. Epaitegiak Estatuaren alde jotzen



Eusko Jaurlaritzak Madrilen menpe baldin badago, ¿zertarako balio du autogobernuak?

badu eta Eusko Jaurlaritzak legedia betetzeko hautua egiten badu, irakaskuntza osoan 6.000 lanpostuen galerraren borroera izanen da.

Gobernuak Madrileko sukurtsala bilakatzea onartu du.

Autogobernuaren alde egiazki ez badu egiten eta Estatuarekin erkatu, murrizketarik hoberena euskal egitura politika osoa bertan behera uztea litzateke eta gobernuko delegatuak agindu gaitzala. Honela, aplikatu beharreko erabakiak berdinak izango lirateke eta aurrezturikoa garrantzi handikoa.

MURRIZKETAK GERATZEKO, EZINBESTEKO MOBILIZAZIOA

Zerbitzu publikoak jasaten ari diren eraso itzelen aurrean, politika publikoak aldatzeko errealista den alternatiba bakarra mobilizazioa da. Murrizketek egoera ekonomikoa zapuzten dute, dirua zirkulaziotik erretiraten dute kontsumoa gutxituz, eta enplegua suntsitzen dute. Zergapeko diru sarreraren gutxitzeak gobernuak aukeratzera behartzen ditu: edo gastua murriztu edo gaur ez bezelako beste neurriak hartzera.

Txintik esan gabe dogma neoliberalak onartzen duen gobernuaren aurrean, sortu dezakegun presioaren bitartez bakarrik aldaraziko ditugu bere politikak. Murrizketak ez dira amaituko baldin eta mobilizazioa eta etengabeko presioaren bitartez gutxienko orubea lortzen ez badugu, hortik aurrera kendutako eskubideak berreskuratzeko eta eskubide sozial berriak lortzeko.

Mobilizazioa etengabekoa behar du izan eta geroz eta indartsuagoa. Horrekin batera, mobilizazioan gaudenok argi izan behar ditugu hainbat gauza.

■ Murrizketa dakarren inongo neurriari ezin zaio babesik eman.

Testuinguru honetan, negoziazioa murrizketak leuntzera bideratzea desmobilizazioa dakar eta honek bide ematen dio gobernuari aurretzean ere murrizketak gauzatzeko.

■ Aldarrikapenek politika fiskalaren murrizketen bukaera exijitu behar dute eta, bide batez, politika fiskalaren sakoneko aldaketa, bestelakoak diren gastu politikak ahalbideratzeko.

■ Ezin da ere kanpoko injerentziarik onartu. Euskal Herriko langileok eskubidea dugu erabakitzeko zer nolako zerbitzu publikoak nahi ditugun. Gure bizi baldintzak Madrilen erabaki daitezzen onartzeak murrizketak ezinbestekotzat jotzea ekartzen du (Madrilen aitzaki gisa erabiltzen den bezala Troika edo Europatik agindutakoa).

Premisa hauek oinarrizkat harturik, organizazio ezberdinen arteko mobilizazioa partekatu daiteke eta bide eman ere.





ZERBITZU PUBLIKOAK DEFENDATUZ

Azken lau urteetan behin eta berriz errepikatu dugu zerbitzu publikoak direla bizi baldintza duina eduki ahal izateko bermea, zerbitzu horiek erabiltzen dituen lagunaren eros-ahalmenetik harantzago. Krisi sakon egoera batean berme hori ezinbestekoa bihurtzen da, orain zein etorkizunean pobrezia egoerak eragingo duten gizarte bazterketak eragozteko.

Hala ere, gobernu ezberdinen apustua oso bestelakoa da: inoiz baina beharrezkoagoak diren honetan zerbitzu publikoak kentzen eta murrizten dituzte. Izan ere, diru-sarreraren politika errotik ez aldatzeko, aurrekontu publikoak bankaren beharrezkoen mesedetara jartzeko eta gastu publikoa murrizteko erabaki politikoa hartu dute.

Zerbitzu publikoetan lanean dihardugunok zerbitzu horien kalitatea defendatzera behartuta gaude, gure lan baldintzak defendatzearekin bat. Zerbitzu on bat eskaintzeko egonkortasuna, lan-karga onargarriak eta bizi baldintza duinak behar ditugu. Zerbitzuaren kalitatearen mesedetan dugun guztia emanaz gure lan baldintzak aldarrikatzeko zilegitasun soziala irabazi ahal izango dugu.

Gaur, inoiz baino gehiago, guztiontzako zerbitzu publikoak aldarrikatzea dagokigu, aberats nahiz pobreentzat, gazte eta adinekoentzat, gizon eta emakumeentzat, osasuntsu dagoena eta gaixoentzat, ikasketak ez dituzten eta dituztenentzat... ZERBITZU PUBLIKOAK GUZTIONTZAT!!

ORAIN TRIKIMAILUEKIN DATOZ SEKTOREETARA

Gobernua sektore ezberdinetan akordioak ixten saiatuko da, Mahai Orokorrean hori egiteko gai izan ez denean. Sindikatuak ataka honetan jartzen saiatuko da: akordio txar eta oso txar baten artean aukeratzera behartu nahi gaitu, era honetan bake soziala bilatzea bermatu nahi duelarik. ELarentzat ez dago murrizketak bertan behera uztea suposatuko ez duen inolako negoziatio aukerarik, ororen gainera enplegu guztiaren mantenua lehenetsiz eta etorkizunean murrizketa berri bakar bat ere ez egongo ez denaren benetako konpromisoa lortuz. Bi premisa horiek gabe negoziatioak zera suposatzen du: gobernuari arnasa ematea, bake sozialaren babesean etorkizunean inolako erantzunik gabe murrizketa berriak inposatu ahal izateko. Argi dago mobilizatzea beste aukerarik ez zaigula gelditzen.

ELA

HARPIDETZA
HOJA DE AFILIACION

N.º AFILIACION / AFILIAZIO ZENBAKIA

Nombre / Izena
 1.º apellido / 1. abizena
 2.º apellido / 2. abizena
 Fecha de nacimiento / Noiz jaioa
 Lugar de nacimiento (Indicar provincia) /
 Non jaioa
 D.N.I. / N.A.N.

DOMICILIO / HELBIDEA

Dirección / Helbidea
 Localidad / Herria
 Provincia / Probintzia
 Teléfono / Telefonoa

EMPRESA DONDE TRABAJA / LANTOKIAREN IZENA

N.º Inscripción Seguridad Social / Aseguro
 Sozialaren Zenbakia
 Nombre / Izena
 Domicilio / Helbidea
 Localidad / Herria
 Tipo de industria / Industri mota
 Convenio / Konbenioa

PAGO DE CUOTAS / KUOTEN ORDAINKETARAKO

Banco o Caja de Ahorros / Bankua edo
 aurrezki-kutxa
 Sucursal / Sukursala
 N.º de cuenta / Kontu zenbakia

 Tipo de cuota / Zein mailako kuota

 Email / Posta elektronikoa

Firma / Sinadura